

Norberaren atean sartutako zazpi golen misterioa



IZENBURUA:

EGILEA:

IRUDIGILEA:

ARGITALETXEA:

ORRIALDE-KOPURUA:



Zer erantzun emango lituzke Camuñasen aitak galdeketa honetan?

GALDERA	ERANTZUNA
Zer lortu nahi zuen?	
Ba al zuen konplizerik?	
Zer partidari eragin zien eroskeriak?	

- Camuñas zure laguna izango balitz, zer esango zenioke gertatutakoaren ondoren?

.....

.....

.....

2

Lotu pertsonaia bakoitza adjektibo batekin, eta osatu esaldia.

Pakete

Harroa da; izan ere,

Estu Mari

Azkarra da; izan ere,

Toni

Izutia da; izan ere,

- Orain, idatzi zeure burua deskribatzeko adjektibo bat kasu bakoitzean.

Ni naiz, eta, jendearen iritziz, naiz.

3

Zer harreman-mota dago bikote hauen artean?

BIKOTEA	HARREMANA
Helena eta Luccien	
Helena eta Pakete	
Nihal eta Pakete	
Helena eta Toni	

- Zer galdetuko zenioke Luccieni galdera bakarra egiteko aukera izango bazenu?

.....

4

Irakurri Feliperen aipu hau, eta azaldu zure hitzetan zer den zortea haren ustez eta zer den zure iritziz.

*Ba... prestakuntza eta aukerak elkartzen direnean,
hortxe duzu zortea. (157. or.)*



Feliperen ustez, zortea da

Nire iritziz, zortea da

5

Adierazi esaldi hauek zuzenak (Z) ala okerrak (O) diren.

- ☐ Habermas entrenatzaileak irabaztea besterik ez du buruan.
- ☐ Luccienek gezurra esan zuen partiden emaitzak adostuta zeudela adierazi zuenean.
- ☐ Tonik eta Paketek hanbat konplizitate-une izan dituzte istorio honetan.
- ☐ Liburu honetan, norberaren atean sartutako gol guztiak ez dira eroskeriagatik.

6

Liburuaren amaieran, egileak ez du adierazi nork irabazi zuen torneo. Zergatik?

Gai hori bildumako hurrengo liburuan argituko delako.

Liburuko azken kapituluetan zer gertatzen den ikusita, nork irabazi zuen ondoriozta daitekeelako.

Horrela argi geratzen delako, istorio honetan, ez duela axola nork irabazten duen.

- Kirol batean jokatzen duzunean, zuretzat garrantzitsua al da irabaztea? Zergatik?

.....

.....

.....

Idazketa-tailerra

Luccienek erabaki zaila hartu behar izan zuen, aurrez aurre jarri baitziren bere printzipioak eta bere taldean jokatzeko jarraitzeko nahia. Zer egingo zenuen zuk haren lekuan egon izan bazina? Argudiatu zure jarrera.

- Zerrendatu torneoan jarraitzeko arrazoi guztiak.
- Gero, idatzi tornea uzteko arrazoiak.
- Aldeko eta kontrako argudioak aztertu ondoren, idatzi zer ondoriotara iritsi zaren.

